



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 30a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Aezkoa Ibarreko Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aezkoa Ibarreko Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Aezkoa Ibarreko Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Aezkoa Ibarreko Komunitateari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Entitatearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (4. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (4. or.).
 - II.2. Aplikatzekoa den araudia (5. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa. (6. or.).
- IV. Iritzia (7. or.).
 - IV.1. Aezkoa Ibarren 2012ko kontua (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (8. or.).
 - IV.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (8. or.).
- V. 2012ko kontu orokorraren egoera-orri birformulatuak (9. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (9. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta (10. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (10. or.).
 - V.4. Egoera-balantzea 2012ko abenduaren 31n (11. or.).
 - V.5. Emaizta ekonomikoa 2012ko abenduaren 31n (12. or.).
- VI. Aezkoa Ibarreko buruzko ondorioak eta gomendioak (13. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).
 - VI.2. Langile-gastuak (14. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (15. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).
 - VI.5. Inbertsioetako gastuak (17. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).
- VII. Irati Orreaga, S.L. sozietateari buruzko ondorioak eta gomendioak (20. or.).

I. SARRERA

2013ko ekainaren 20an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskari bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen ekimenez, Aezkoa Ibarreko Komunitatearen (Aezkoa Ibarra hemendik aurrera) azken bost urteetako kudeaketa ekonomiko-finantzarioari eta kontuei buruzko fiskalizazioa egin zedin. Aezkoa Ibarrenaren gobernu-organo gorena Aezkoako Batzar Nagusia da, eta bera da Aezkoa Ibarrenaren ondasun guztien ordezkaria eta administratzailea.

Eskari hori betetzeko, aurreko lan hori Ganbera honen 2013rako lan-programan sartu zen. Eskarian jasotako denbora-esparrua azken bost urteei badagokie ere, gure lanaren ardatza 2012ko ekitaldiaren azterketa izan da, eta, horretaz gainera, 2009ko ekitalditik aurrerako finantza-egoeraren bilakaera aztertu dugu.

Azterketa-lana 2013ko abendutik 2014ko martxora egin da.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago 2000ko abenduan, Kontuen Ganberak ibar horren eta hura osatzen duten udalen 1999ko ekitaldiko fiskalizazio-txosten bat egin zuela. Txostenean, honakoa adierazi zen:

- Aurrekontuaren likidazioari buruzko aldeko iritzia.
- Ez genuen iritzirik eman ondare-egoerari buruz.
- Legezketasunaren betetzeari buruzko aldeko iritzia.
- Finantza-egoerari buruzko aldeko iritzia.

Halaber, 2000ko abenduan, beste txosten bat egin genuen, non azterketa bat egiten baitzen Ibarreko tokiko zerbitzu publikoak emateko gastuaren arrazoizkotasun ekonomikoari buruz. Txosten horretan proposatzen genuen entitate bakarrean zentralizatzea (Batzar Nagusia) udalek ematen dituzten zerbitzu publikoak.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrean, fiskalizazioaren xede den entitatearen deskribapen bat egiten da, eta hari aplikatzekoa zaion araudia aipatzen da; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu. Laugarrenean, Aezkoa Ibarrenaren kontu orokorrari buruzko iritzia ematen dugu; haren laburpenak bosgarren atalean ageri dira. Seigarren eta zazpigarren ataletan iruzkinak, ondorioak eta gomendioak ematen ditugu, gure ustez egokiak direnak Aezkoa Ibarrenaren eta haren sozietatearen antolamendua eta barne kontrola hobetzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aezkoa Ibarreko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ENTITATEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Aezkoa Ibarra Foru Komunitatearen iparraldean dago, eta honako herriek osatzen dute: Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Aribe, Garaioa, Garralda, Orbaitzeta, Orbara eta Hiriberri Aezkoa.

200 km²-ko azalera du eta 954 biztanle zeuzkan 2012ko urtarrilaren 1ean.

Aezkoa Ibarra Aezkoako Batzar Nagusiak kudeatzen eta ordezkutzen du. Batzar Nagusiak Ariben du egoitza.

Entitate hau izaera tradizionalako batasun bat da, eta IX. mendean du jatorria. Honakoak ditu eginkizun nagusi:

- Ibarren baliabideak kudeatzea eta administratzea. Horretan, Irati mendiak du garrantzi berezia.
- Udalez gaindiko eragina duten garapen proiektuak bultzatu eta egitea.
- Bizitza publikoaren hainbat alderdi erregulatzea: ordenantzen onespena, auzolan deialdiak (elkarren artean egiten diren lanak) edo batzarra (bizilagunen bilkura, erabakiak hartzeko balio duena).
- Inbertsioetan, etxebizitzaren arloan, enplegu sorreran eta abarretan laguntzeko politika osagarriak ezartzea.

Aezkoa Ibarrek 2010eko maiatzean sozietate publiko bat eratu zuen, 3.006 euroko kapitalarekin, Irati Orreaga S.L. izenekoa. Sozietate horren helburua da energia elektrikoa sortzea, biomasatik abiatuta, eta Ibarreko oihanak ustiatzea. Gaur arte ez du jarduerarik izan.

Halaber, Aezkoa Ibarrek, Erroibarko Udalarekin batera, Urrobi Partzuergoan parte hartzen du, eskualdeko jarduera ekonomikoa sustatzeko.

Hona entitate horren 2012ko abenduaren 31ko kopuru ekonomikoa aipagarrienak:

Entitatea	Zenbatekoa (eurotan)		Langileak, 2012-12-31n
	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	
Aezkoa Ibarra	458.863	362.462	4

II.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Honakoak dira Ibarrari aplikatzekoak zaizkion oinarrizko arauak, besteak beste:

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta 3.000 biztanletik beherako lurralde esparrua duten toki entitateentzako Kontabilitate Bakuneko Instrukzioa onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270/1998, 271/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Ibarreko Batzar Nagusiaren aurrekontua betetzeko oinarriak eta ordenantzak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Irati Orreaga, S.L. sozietatea, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Aezkoa Ibarren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Aezkoa Ibarren 2012ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.
- Aezkoa Ibarren 2012an aurrera eraman duten finantza-jardueran legezkotasuna bete den.
- Aezkoa Ibarren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

Fiskalizazioaren norainokoa honakoa izan da:

- Aezkoa Ibarren kontu orokorrak honako finantza-emaitza aipagarriak dauzka: aurrekontuaren betetze-egoera, aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Ondoren, arauzkotasunaren fiskalizazioaren ondorioz atera dugun iritzia ematen dugu:

IV.1. AEZKOA IBARRAREN 2012ko KONTUA

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetuari euskarria ematen dionik. Ibilgetuak, 2012ko abenduaren 31n, 2.088.325 euroko balioa du.

Ez dago loturarik inbertsio errealeen 6. kapituluan erregistratutako eragiketen eta egoeraren balantzearen artean.

1. kapituluan 107.980 euro egiten duten langile-gastu batzuk erregistratu dira, 2. kapituluan erregistratu beharko litzatekeen zerbitzu-kontratu bati dagozkionak. Halaber, gastuen 2. kapituluan kontabilizatutako 13.511 euroko gastu batzuk 1. kapituluko langile-gastuei dagozkie.

Ekitaldien arteko kontabilizazio-akatsak tarteko, aurrekontuko diru-sarretan 67.116 euro gutxiago ageri dira, eta, horrenbestez, guztizko aurrekontu-emaitzari kopuru hori falta zaio; bestetik, balantzeko zordunen kopuruetan behar baino 48.813 euro gehiago ageri dira.

Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakinean ez da jaso 315.000 euroko diru-laguntza bat, 2011n, jasotakoa. Haren xedea zen Orbaitzetako arma fabrikako jauregia erreformatzea.

Balantzean eta diruzaintza-gerakinean aurrekontuz kanpoko eragiketen saldo zordun batzuk ageri dira, 15.177 euro egiten dutenak eta berreskuratzekoak diren kontusailei ez dagozkienak.

Ez da diru-bilketa zaileko eskubideen kalkulurik egin. 49.967 euro eginen lukete, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Ez dira kalkulatu urte anitzeko gastuen proiektuetan dauden finantzaketa-desbideratzeak.

Egiaztatu da transferentzia arrunten gastu batzuk 4. kapituluan erregistratuta daudela, 21.381 eurokoak, kapital-transferentzien 7. kapituluan kontabilizatu beharko zirenak.

Guztizko diruzaintza-gerakinari dagokionez aipatutako salbuespenek duten eragina da behar baino 113.957 euro dituela; gastu orokorretan, berriz, behar baino 428.957 euro gehiago ageri dira.

Gure iritziz, aurreko salbuespenek daukaten eragina ikusita, Aezkoa Ibarren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak ez du irudi zehatza erakusten aurrekontuaren likidazioari buruz eta 2012ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoak diren kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta arauen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Ibarraren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har, aipatu diren aurrekontuen kontabilitate-gaietako salbuespen horien ondorioak salbuetsita.

IV.3. 2012ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

Aezkoa Ibarraren kontu orokorrari buruz ganbera honek daukan iritzia dela eta, ezin izan da azterketarik egin egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, ez eta, egin ohi den bezala, aurrekontu-egonkortasunaren betetzeari buruz ere, zeren eta lor litezkeen ondorioek ez bailukete fidagarritasunik izanen.

Aurrekoa gorabehera, ondoren datu batzuk aipatuko ditugu 2012ko egoera ekonomiko-finantzarioari buruz. Datu horiek IV.1 atalean aipatutako doikuntzak egin ondoren lortu dira.

- Aurrezki garbia negatiboa da, 105.780 eurokoa. Horrek esan nahi du Ibarra 2012an ez dela gauza izan bere baliabide arruntak sortzeko gastu arruntak finantzatzeko.
- Ez dago Ibarrean zor bizirik, eta egoera berari eutsi zaio azken bost urteetan.
- Diruzaintza-gerakina, behar diren doikuntzak egin ondoren, 427.175 eurokoa da; horietatik 315.000 euro finantzaketa atxikia duten gastu-gerakinari dagozkio, eta gainerako 112.175 euroak gastu orokorretarako dira.

Azken batean, Aezkoa Ibarraren egoera ekonomikoak, aurrezki garbi negatiboa duen arren, funtsean zuzaitzen salmentak behera egin duelako, saneatua da, zeren eta ez baitu zor bizirik eta aurreko ekitaldietan sortutako funtsak baitauzka etorkizuneko ekitaldietako gastuak finantzatzeko. Hori guztia gorabehera, eta Ibarra toki entitate txikia eta izaera tradizionalakoa izanda ere, Ganbera honek uste du eragiketen erregistroa eta kontabilitatea hobetu behar direla, kontu orokorra osatzen duten kontabilitateko egoera-orriek hark garatzen duen jardueraren errealitatea erakuts dezaten.

V. 2012ko KONTU OROKORRAREN EGOERA-ORRI BIRFORMULATUAK

Kontu orokorra osatzen duten egoera-orri guztiak aldatu dira, IV.1 atalean aipatutako salbuespenen eraginak kontuan izanda.

V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	235.410	0	235.410	124.457	53	103.631	83	20.826
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	168.250	0	168.250	168.472	100	143.586	85	24.886
3. Finantza-gastuak	8.000	0	8.000	856	11	856	100	0
4. Transferentzia arruntak	83.600	0	83.600	76.093	91	22.367	29	53.726
5. Inbertsio errealak	604.150	0	604.150	88.985	15	81.294	91	7.691
Gastuak, guztira	1.099.410	0	1.099.410	458.863	42	351.734	77	107.129

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratutakoa (%)	Kobratzeko dagoena
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	48.000	0	48.000	33.958	71	33.853	100	104
4. Transferentzia arruntak	157.660	0	157.660	32.427	21	2.892	9	29.535
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	435.750	0	435.750	197.713	45	61.635	31	136.078
7. Kapital-transferentziak	458.000	0	458.000	165.480	36	123.630	75	41.850
Diru-sarrerak, guztira	1.099.410	0	1.099.410	429.578	39	222.010	52	207.567

V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2011	2012
Aitortutako eskubideak	1.181.855	429.578
Aitortutako betebeharrak	-579.755	-458.863
Aurrekontu-emaiza	602.101	-29.285
Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	602.101	-29.285

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011	2012
+ Kobratzeko dauden eskubideak	607.663	247.297
Ppto. Ingresos: Aurtengo ekitaldia	541.641	227.567
Ppto. Ingresos: Itxitako ekitaldiak	48.513	67.368
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	17.509	2.329
(Nekez kobratzeko eskubideak)	0	-49.967
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	254.513	155.810
Ppto. Gastos: Aurtengo ekitaldia	162.244	107.129
Ppto. Gastos: Itxitako ekitaldiak	55.640	14.890
Diru-sarreraren itzulketak	0	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	36.628	33.790
+ Diruzaintzako funts likidoak	285.601	335.687
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	638.751	427.175
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	203.364	315.000
Baliabide atxikien ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	435.387	112.175

V.4. EGOERA-BALANTZEA 2012ko ABENDUAREN 31n

Aktiboa

Deskribapena	2011	2012
Ez-arrunta	2.088.325	2.177.311
Ibilgetu materiala	574.062	579.859
Ibilgetu ukiezina	0	0
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	213.089	256.743
Herri ondasunetan egindako inbertsioak	1.301.174	1.340.709
Finantza-ibilgetua	0	0
Korrontea	893.264	648.129
Zordunak	607.663	312.442
Finantza-kontuak	285.601	335.687
Aktiboa, guztira	2.981.589	2.825.440

Pasiboa

Deskribapena	2011	2012
Funts berekiak	2.727.076	2.669.630
Ondarea eta erreserbak	2.727.076	2.669.630
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
Epe luzeko hartzekodunak	0	0
Epe laburreko hartzekodunak	254.513	155.810
Epe laburreko zorrak	254.513	155.810
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
Pasiboa, guztira	2.981.589	2.825.440

V.5. EMAITZA EKONOMIKOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Deskribapena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	30.881	33.958
61 Langileria-gastuak	227.543	124.457	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	511.815	197.713
62 Finantza-gastuak	13.344	856	72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
63 Zergak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	74.184	168.472	75 Ustiapeneko diru-laguntzak		
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	134.603	32.427
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
67 Transferentzia arruntak	27.048	76.093	78. Bestelako diru-sarrerak	0	0
68 Kapital-transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta homiduretarako hornidura, ekitaldikoa	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	335.179	0	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	105.779
Guztira	677.298	369.877	Guztira	677.298	369.877

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa	Deskribapena	2011ko zenbatekoa	2012ko zenbatekoa
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	105.779	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	335.179	0
82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balio-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	160.945	1.218	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	9.741	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	183.975	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	106.997
Guztira	344.920	106.997	Guztira	344.920	106.997

VI. AEZKOA IBARRARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, Kontuen Ganbera honek Ibarraren funtzionamenduaz atera dituen ondorio nagusiak eta, haren aburuz, Aezkoa Ibarrak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu beharko lituzkeen aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Aezkoa Ibarraren aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta 2012ko abenduaren 5eko NAOn argitaratu zen.

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetu materialaren eta ez-materialaren kontabilitate balioak, azpiegituretako eta erabilera orokorrerako ondasunetako inbertsioak eta herri-ondasunetan egindako inbertsioak oinarritzen dituenik. Horien balioa 2.088.325 eurokoa da 2012ko abenduaren 31n.

Ez dago loturarik inbertsio errealeen 6. kapituluaren erregistratutako gastuen, balantzearen eta inbentarioaren artean; horrenbestez, ibilgetua ez zen 2012an gaurkotu urte horretan egindako 88.985 euroko inbertsioekin.

Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuen saldoaren barruan, 15.177 euroko kopuru bat kontabilizatu da, jada berreskuratzen ezina den kontusail bati dagokiona.

Erregistratuta ageri dira oihan-loteen esleipen-hartzaileen eskutik jasotako fidantza batzuk, 2007a baino lehenagoko saldoekin; 13.442 euro egiten dute. Haiek eskatzekoak diren aztertu beharko litzateke.

Diruzaintza-gerakina kalkulatzeko, ez dira kontuan hartu diru-bilketa zaileko eskubideak. Araudia aplikatuta, 49.967 eurokoak izanen lirateke 2012an.

Diruzaintzaren egoera-orrian, aurkitu dugu zenbait banku-kontu badaudela finantza-entitateetan operatibo ez daudenak; haiekin, izan ere, ez da inongo eragiketarik egiten. Erregistratutako mugimendu bakarrak haren mantentzearekin lotutako gastuenak dira.

Hona gomendatzen duguna:

- *Aurrekontuak legedi indardunean ezarritako epean egitea.*
- *Inbentario bat egitea, ibilgetuaren kontusailak balantzean zuzen kontabilizatzeko.*
- *Ekitaldian egindako inbertsio guztiak balantzeko aktiboko ibilgetu-kontu guztietan sartzea.*
- *Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen antzinako saldoak exijitzekoak diren eta indarrean dauden berrikustea.*
- *Aurrekontuz kanpoko beste zordunen saldoak berrikustea, balizko akatsak eta aldeak zuzentzeko.*
- *Diru-bilketa zaileko eskubideak kalkulatzeko, arau indardunen arabera, eta diruzaintza-gerakinari buruzko formulazioan sartzea.*
- *Mugimendurik ez duten banku-kontuak kitatzea, behar ez diren gastuak saihesteko.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 218.926 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 93, alegia. 2012ko ekitaldian sorrarazitako gastuen guttizkoaren ehuneko 48 egiten dute. Hona kontuak banakatuta (eurotan), 2011koekin alderatuta:

	2011	2012	2012/2011 aldea (%)
10. Goi karguak	1.407	1.407	—
12 Langile funtzionarioak	36.226	36.147	-0,2
13 Lan-kontratudun langileak	151.974	149.228	-1,8
14 Hainbat lansari	9.372	5.088	-46
16 Gizarte aseguruak, montepioko kuotak eta familia laguntza	28.564	27.056	-5
Guztira	227.543	218.926	-4

Langile-gastuak ehuneko lau gutxitu dira 2011koekin alderatuta. Gutxitze arin horren arrazoia izan da, funtsean, langileen kontratazioak behera egin duela, oihan-markazioen eta turismo-bulegoaren zerbitzuaren kontzeptuetan.

Plantilla organikoa 2012an onetsi zuen Aezkoako Batzar Nagusiak, baina ez zen NAOn argitaratu. Lau lanpostu zeuzkan. 2012ko abenduaren 31n, Aezkoa Ibarrean lau pertsona horiek egiten zuten lan, honako eginkizunetan, hain zuzen:

Lanpostua	Maila	Jardunaldia
Administrazio-kontratua duten langileak:		
Idazkaritza	A	% 100
Euskara teknikaria	B	% 100
Garbiketa	E	% 41
Lan kontratudun finkoak		
Administrari laguntzaile bat.	D	% 50

- Kapitulu honetan, aldi baterako langileei dagokien artikuluan, 107.980 euroko gastuak ageri dira, Iratirako Hitzarmenerako zerbitzu-kontratu bati eta oihan kudeaketako zerbitzu anitzei buruzkoak. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuen 2. kapituluari dagozkie.

- Egiatzatu da 2012an aplikatutako osagarrien ehunekoak ez datozela bat Batzar Nagusiak plantilla organikoa onesteari buruzko aktan ageri direnekin, haren transkripzioan izandako akatsak direla medio. Akats horiek zuzendu dira jada.

- Idazkaria da antzinasunetik heldu den ordainsaria jasotzen duen bakarra, nahiz eta gainerako langileei ere badagokien.

- Langileei abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aplikatu zitzaizen, zeinak bere artikulua bakarrean, xedatzen baitu 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

Lege horrek 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAOn argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako

neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko”, Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onartutakoa, eta auzitegi horrek foru lege haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtoak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Aurrez aipatutakoa alde batera utzita, gastu horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

Hona gomendatzen duguna:

- *Ekitaldi bakoitzeko plantilla organikoa argitaratzea, arauetan ezarritakoaren arabera.*
- *Antzintasunaren kontzeptuari dagozkion ordainsariak ordaintzea Ibarreko Batzarreko langile guztiei, arau indardunak betez, kasuan kasu.*
- *Gastuen 2. kapituluaren erregistratzea ondasun arruntek edo kontratatutako zerbitzuek sortutakoek.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 74.002 eurokoak izan ziren; aurreikusitako kredituaren ehuneko 44, hain zuzen. 2012an guztira sortutako gastuen ehuneko 16 egiten dute eta 2011koen ia berak dira.

Honakoak dira ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa-gastuetan ageri diren kontzeptu nagusiak, eurotan:

Kontzeptua	2011ko gastua	2012ko gastua	2012/2011 aldea (%)
Udalbatzaren ordainketa	11.265	13.511	20
Gasolioa, berokuntza	3.986	7.527	89
Ekipoen eta programa informatikoaren mantentzea	5.713	6.782	19
Materiala eta bulegoko materiala	5.935	6.599	11
Lan-aholkularitza eta aholkularitza juridikoa	4.608	5.361	16
Energia elektrikoa	4.739	5.198	10
Ibarraren Etxeko telefonoa	4.624	4.901	6
Euskara zerbitzuaren jarduerak	5.378	4.330	-19
Material tekniko eta berezia	2.429	4.196	73
Guztira	48.677	58.405	20

Gastu horien gainean egindako azterketatik ondorioztatzen da egoki bete dela araudi indarduna eta gastuak zuzen kontabilizatu direla. Halere, adierazi beharra dago kapituluako gastu garrantzitsuena Aezkoako Batzarreko lehendakariaren ordainsariari dagokiona dela.

Gomendatzen dugu lehendakariaren ordainsariengatiko gastuak erregistratzea langile-gastuei buruzko 1. kapituluaren.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferenziengatiko gastuak –guztiak ere transferentzia arruntak dira– 76.093 eurokoak izan ziren 2012an; gastu guztien ehuneko 17, hain zuzen. Haien betetze mailak behin betiko kredituen ehuneko 91 egin zuen. Transferentzia berriak sartzearekin, ehuneko 181 egin du gora gastuak kapitulu honetan, 2011rekin alderatuta.

Honakoak dira 2012an gastu gisa erregistratutako transferentzia nagusiak, eurotan:

Kontzeptua	2011ko gastua	2012ko gastua	2012/2011 aldea (%)
2009-2010 urteetako jaiotzarako laguntzak	-	30.000	-
Udaletako obren finantzaketa/Hiriberri.	-	17.000	-
Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	12.900	13.582	5
Errekurtsorako diru-laguntza (etxebizitza birmoldatzea)	-	4.381	-
Garapenerako Agendaren finantzaketa	-	4.500	-

Kapitulu honetako gastu garrantzitsuena jaiotzarako laguntzei dagokiena da. Laguntza horiek dagokien ordenantzaren arabera eman izan dira duela zenbait urtetik hona. Laguntzen zenbatekoa 7.510 eurokoa da, bost urtetan banatua. 2012ko gastua aurreko urteetan emandako eta sortutako laguntzei dagokie. Izan ere, urte haietan ezin izan zitzairen aurre egin.

Jasotako informazioaren arabera, 2012ko abenduaren 31n, Aezkoa Ibarrek jaiotzarako laguntzei dagokien 53.795 euroko kopurua ordaintzeko konpromisoa dauka; zenbateko horretatik, 30.000 euro jada 2013ko aurrekontuari egotzi zaizkio.

Kapitulu honetan, obrak finantzatzeko diru-laguntzak sartu dira (17.000 euro) bai eta etxebizitza bat birmoldatzekoak ere (4.381 euro); azken hori, gainera, 2011n sortutako gastu bati dagokio, nahiz eta haren ordainketa 2012an egin zen.

Gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu zuzen kontabilizatuta daudela, aplikatzekoa den araudiaren arabera, aurreko lerrokadan adierazitakoa kenduta.

Hona gomendatzen duguna:

- *Sortutako gastuak ekitaldi bakoitzeko aurrekontuari egozte, ordainketa noiz egiten den alde batera utzita.*
- *Transferenziengatiko gastuak beren izaeraren arabera erregistratzea, ekarpenaren xedeari erreparatuta.*

VI.5. INBERTSIOETAKO GASTUAK

2012ko inbertsioak 88.986 eurokoak izan dira. Gastu guztiaren ehuneko 19 egiten dute eta ehuneko 63 egin dute behera 2011n aitortutako betebeharren aldean, zeren eta obra gutxiago eta diru-kopuru txikiagoak izan baitira.

Honako inbertsioen kontratazio-, esleipen- eta betetze-espeditenteen izapidetzea berrikusi dugu –kapituluko gastuaren ehuneko 70 egiten dute eta 2012an esleitu ziren–:

Inbertsioa	Lizitazio-prezioa, BEZa barne (eurotan)	Kontratazio prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)	2012ko gastua
Orbaitzetako arma fabrikako jauregia zaharberritzea	1.199.988	Irekia	1.091.989	0
Oihan lanak, 2012-2013 (berroihantzeak)	94.743	Publizitaterik gabe negoziatua	93.242	0
2012ko larreetarako planerako lanak	36.221	Publizitaterik gabe negoziatua	35.979	35.979
Oihan lanak, 2012-2013 (aparkalekuak)	16.517	Publizitaterik gabe negoziatua	16.021	16.021
Oihan lanak, 2012-2013 (mantentze-lanak)	10.357	Publizitaterik gabe negoziatua	9.956	9.956

2012an Orbaitzetako arma fabrikako jauregiko zaharberritze-lanen esleipena egiteari dagokionez, aipatu beharra dago deuseztatu egin zela, zeren eta Sustapen Ministerioak, bera baitzen obraren zati bat diruz lagundu behar zuena, ulertu baitzuen finantzaketa-hitzarmenaren atal baten aurkakoa zela. Aezkoako Batzar Nagusiak obrak entregatzeko luzapena eskatu eta urteko ordainketak birkalkulatu ondoren, 2013ko abenduan obra berriz ere esleitu zen, 711.857 euroko prezioan (BEZa barne).

Egindako azterketatik, ondoriozta daiteke bai kontratazio-espeditenteen izapidetzea, bai esleipenak eta betetzeak egokiak direla.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko diru-sarrerak 362.462 eurokoak izan ziren. Hona haien xehakapena, eurotan, kapituluaren arabera antolatuta eta 2011n aitortutakoekin alderaketa eginez:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		2012/2011 aldea (%)
	2011	2012	
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	30.881	33.958	10
4. Transferentzia arruntak	134.603	32.427	-76
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	511.815	197.713	-61
7. Kapital-transferentziak	504.557	98.364	-81
Diru-sarrerak, guztira	1.181.856	362.462	-69

2012ko diru-sarrerek ehuneko 69 egin zuten behera, 2011n aitortutakoekin alderatuta, zeren eta transferentziak eta ondare bidezko diru-sarrerak nabarmen jaitsi baitziren. Ondoren, diru-sarreraren kapituluak banan-banan aztertuko ditugu:

VI.6.1. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Kapitulu honetako diru-sarrerek 33.958 euro egiten dute, eta diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko bederatzia egiten dute, ehuneko 71ko betetze-mailarekin.

2011rekin alderatuta, ehuneko 10 egin dute gora, funtsean prezio publikoen diru-bilketak gora egin duelako, Iratiko oihanean aparkatzeko prezio publikoei esker, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Deskribapena	Aitortutako eskubide garbiak		2012/2011 aldea (%)
	2011	2012	
Iratin aparkatzeko txartelak eskuratzeko prezio publikoak	24.802	28.816	16,
Argitalpenen salmenta	5.716	3.876	-32,
Agiriak eman eta tratatzea	363	1.266	248
Diru-sarrerak, guztira	30.881	33.958	10

Diru-sarrera hauen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu zuzen kontabilizatuta daudela eta aplikatzekoa den araudiaren arabekoak direla.

VI.6.2. Transferentzien bidezko diru-sarrerak*VI.6.2.1. Transferentzia arruntak*

Diru-sarrera hauek 2012an 32.427 euro egin zuten, ehuneko 21eko betetze-portzentajearekin. 2011koen aldean, ehuneko 76 egin dute behera.

2012an jasotako transferentzia arruntak, eurotan, beren zenbatekoarengatik aipagarri direnak, eta haien eta 2011koen alderaketa, honakoak dira:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Udalaren ekarpena Agoizko euskara zerbitzua	24.128	20.782	-14
Euskara teknikaria kontratatzea	4.451	4.667	5
NEZen diru-laguntza, oihan-kudeaketarako	-	4.086	-
Euskara zerbitzuko langileak birziklitzeko diru-laguntza	-	2.185	-
Eskualdeko proiektuengatik itzulketa	18.743	-	-
Iratirako hitzarmenerako diru-laguntza	64.090	-	0
Guztira	111.412	31.719	

Ikus daitekeen bezala, 2012an ez zen transferentziengatik diru-sarrerarik aitortu Iratirako Hitzarmenerako, zeren eta fidagarritasunik ez baitzegoen Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzeari dagokionez. Halaber, 2011n erregistratu ez ziren beste batzuk badaude, eta alderantziz.

Diru-sarrera hauen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu zuzen kontabilizatuta daudela eta aplikatzekoa den araudiaren arabekoak direla.

VI.6.2.2. Kapital-transferentziak

Diru-sarrera horiek 98.364 eurokoak izan ziren 2012an. Betetzea, berriz, ehuneko 21ekoa izan zen. Ehuneko 81 egin zuten behera 2011ko diru-sarrerekin alderatuta, funtsean 2011n arma fabrikako jauregia zaharberritzeko diru-laguntza bat jaso zelako, ondoren erakusten den bezala:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Larretarako plana	63.681	61.850	-3
Oihan jardueretarako diru-laguntza	125.875	36.514	-71
Sustapen Ministerioa	315.000	-	-
Guztira	504.557	98.364	-81

Jasotako bi diru-laguntza aztertu ditugu, eta honako alderdiak adierazi behar ditugu:

- Diru-laguntza horietako batzuk erregistratu ziren ente ordaintzaileak kasuko betebeharra aitortu baino lehen. Hartara, 2011n, 115.929 euroko kapitaleko diru-laguntzak aitortu ziren, 2012ko urteari zegozkionak; 2012an, berriz, 2013ko urteari zegozkion 48.813 euroko diru-laguntzak kontabilizatu ziren.

- Ez dira finantzaketa-desbideratzeak kalkulatu gastuak eta finantzaketa urte anitzekoak diren inbertsioetan.

Horren ondorioz, finantzaketa-desbideratzea, 2011n jasotako 315.000 euroko diru-laguntzatik heldu dena, ez dago islatuta diruzaintza-gerakinean finantzaketa atxikia duten gastuengatik gerakin gisa.

Hona gomendatzen duguna:

- *Transferentziengatik diru-sarrerak kontabilizatzea, jakiten denean ente ordaintzaileak dagokion betebeharra aitortu duela.*

- *Urte anitzeko inbertsioetan sortutako finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko eta haiek kontuan izatea diruzaintza-gerakina egiteko eta, kasua bada, aurrekontu-emaizta kalkulatzeko.*

VI.6.3. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak

Diru-sarrera hauek 2012an 197.713 euro egin zuten, ehuneko 45eko betetze-portzentajearekin. 2011koen aldean, ehuneko 61 egin dute behera, nagusiki oihan aprobetxamenduen eta ehiza-barrutiaren bidezko diru-sarrerak behera egin dutelako.

Honako hauek dira diru-sarrera hauen kontzeptu nagusiak:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Oihan aprobetxamenduen salmenta	386.294	80.109	-79
Garaziko Ibarrekiko hitzarmena	50.553	53.716	6
Ehiza-barrutia	46.726	32.218	-31
Larreen aprobetxamendua	25.463	25.121	-1
Guztira	509.036	191.164	-62

Oihan loteen salmentari dagokionez, Ibarrek faktura bat egiten dio erosleari, lotea esleitzen zaionean, eta hartan dagokion BEZa sartzen du. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian dagoenez, Ibarrek ez du faktura egin behar; Izan ere, enpresaburuak jaso-agiri bat egin behar du, guztizko zenbatekoa adierazita (horren barne dela, kopuru finkoko konpentsazioaren ehuneko 12a), eta agiri hori izanen da eragiketaren euskarria edo ziurtagiria.

Adierazitakoaz gainera, errepikatzen den diru-sarrera bat badago, ehiza-barrutiari dagokiona.

Ez dira baliabide atxiki gisa erregistratzen ez zuhaitzen salmentatik heldu diren diru-sarreraren ehuneko 20a, Oihan Ondarea Babesteari buruzko 13/1990 Foru legeko 67.1 artikuluan jasotakoa, ez eta ehiza-barrutiak sortutako ehuneko 25a ere, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeko 20.1.d artikuluan finkatutakoa. Aipatutako araudia 2012an aplikatu izan balitz, 24.077 euro atxiki beharko ziren.

Hona gomendatzen duguna:

- *Oihan loteen esleipen-hartzaileei eskatzea behar den jaso-agiria egin dezatela halako eragiketen euskarri gisa.*
- *Baliabide atxikitzat jotzea zuhaitzen salmentaren bidez eta ehiza-barrutiaren bidez lortutako diru-sarreraren ezarritako ehunekoak, eta atxikitako baliabideen egoera-orria egitea.*

VII. IRATI ORREAGA, S.L. SOZIETATEARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Irati Orreaga S.L. Sozietatea 2010eko maiatzean eratu zuen Aezkoa Ibarrek, 3.006 euroko kapital sozialarekin, energia elektrikoa sortzeko jarduera garatzeko, biomasa oinarri hartuta, eta Ibarrean oihan ustiaketako proiektuak egiteko.

Txosten hau egiteko egunera arte, sozietateak ez du langilerik, eta ez du inongo jarduerarik garatu, hurrengo lerrokatetan zehazten dugun diru-laguntzarekin lotutako izapideak izan ezik.

Ez du urteko konturik ez egiten ez aurkezten; ez eta kontuen liburu ofizialik edo zergen aitorpenik ere.

Sozietatearen finantza-kontu bakarraren saldoa 22.236 eurokoa da, eta funtsean 2011n Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntza bati dagokio. Diru-laguntza horren xedea zen lehiakortasuna hobetzea eta sozietatearen jarduerarekin lotutako gastu batzuk egitea, Ibarrek hasierako kapital-ekarpena eginda.

Aurreko diru-laguntzarekin lotutako gastuak 44.501 eurokoak izan ziren, bi fakturatan oinarrituak -24.000 eurokoa bata eta 20.501 eurokoa bestea, 2010ean eta 2011n hurrenez hurren-, biomasari buruzko ingeniariartzako aurretiko azterlanak egiteko. 24.000 euroko faktura zuzenean Ibarrek hartu zuen bere gain. 20.501 eurokoa, berriz, sozietateak hartu zuen bere gain, Ibarrearengandik kopuru horretako diru-laguntza bat jasota.

Hona gomendatzen duguna:

- *Sozietatea desegitea eta Ibarrek haren jardueraren garapena hartzea, baldin eta gauzatzen bada.*
- *Sozietateari eustea erabakitzen bada, Ibarrearekin egindako eragiketak argitzea eta erregulatzea, eta kontabilitate- eta merkataritza-betebeharrak betetzea, eragiketa ekonomikoak egoki erregistratuz.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko ekainaren 2an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas